

URTE GOZOAK

Umetasuna bai, infantilizaziorik ez

Garapen osoa izango badu, haurrari txikitatik errealitate konplexuak, aberatsak eta kalitatezkoak eskaintzea komeni da; ez soilik espazio eta materialei dagokienez, baita kulturaren arloan ere: literaturan, musikan, ilustrazioan, folkloean...

Umeeek munduko konplexutasun guztia ulertzen dutela zioen **Loriz Malaguzzi pedagogoa**, eta gainera, konplexutasuna behar dutela bizitzaren aurreko ikuspegia zabalduz joateko eta bere aukerak egiten ikasteko. Gaurko gizartean, ordea, joera dago umeei gauzak sinplifikatuta ematekoa, alegia, errealitatea mastekatuta eskaintzekoa.

Psikopedagogiaren eremuan ez ezik, kulturaren arloan ere badira infantilizazioa salatzen duten ahots kritikoak, aldizkari honetako "Sormenaz" atalean egindako elkarrizketetan antzeman daitekeenez. Kulturaren infantilizazioaz, mastekatutako errealitateaz, sinplifikatutako produkzioaz, edota homogeneizazioaz mintzo dira, besteak beste, eremu anitzetako hainbat sortzaile.

"Ez zait *ñiñista* izatea gustatzen, umetasuna bai, baina infantilizazioa ez zait gustatzen", argi dio **Mariasun Landa idazleak**. Haurrekiko errespetuaz ari da: "**Heldu batek liburu baten aurrean sentitzen duen emozioak zergatik izan behar du hobea eta handiagoa ume batek senti dezakeena baino?** Haurren emozioak ez al du heldu baten emozioaren balio berbera?" Idazlearen hitzetan, haur eta gazte literaturak badu desafio bat: ahalik eta gauza ge-

hien eta sakonen esatea ahalik eta baliabide linguistiko gutxienarekin. Baina ohartarazten du orain bada-goela beste literatura bat, umeei gustatzen zaiena: "Umeak kontent uzteko nahikoa da pipi, kaka eta kantzontzilloa aipatzea". *Haurrari gustatzen zaio* kriterioak, ordea, ez du asetzen Landa. Izan ere, literatura elikadurarekin konparatuko bagenu, haurrari gehien gustatzen zaio jakia emango genioke egunero, baina ez dugu horrela egiten, bere osasuna zaindu nahi dugulako.

Antzeko ildoan mintzo da **Iban Urizar Amorante musikaria** ere. Haren esanetan, helduek mezuan oso zentratutako musika aukeratzten dute haurrei jartzeko, garrantzia handia hartzen dute ideiek, baina ez horrenbeste hori janzteko erabiltzen den musikak: "**Normalean gauza simple eta errepikakorrek jartzeko joera daukagu, eta uste dut, askotan, gutxietsi egiten dugula umeen gaitasuna musika barneratzeko**". Pentsatzen dugu beste musika bat —popa eta rocka, esate baterako— arrotza egingo zaiela, baina hori gure irudipen bat da, gure prismatik begiratzen baitugu". Musikariak gaineratzen duenez, umeei gaitasuna daukate helduek disfrutatzen duten musika berberarekin disfrutatzeke, "baina ez diegu aukerarik ematen, ez baitiegu, oro

har, guk entzuten dugun musika hori jartzen. Umeentzako musika aukeratzten dugunean sinpletasunera jotzen dugu, pentsatuz horrela errazago iritsiko zaiola umeari". Urizarrek ez du uste musikaren diskurtsoa infantilizatzea onuragarria denik haurrentzat, eta ez dago hain ziur sinpletasunera jo behar ote den umeengana azkarrago iristeko ere.

Arrazoi bertsuengatik, sarri, haurrak inozoak balira bezala tratatzen direla salatzen du **Elena Odrizola ilustratzaileak**. Pedagogiaren, balioen edota heziketa egokiaren izenean, maiz, haurrei errealitatea mozzorrotuta ematen zaiela dio: "Badirudi ardoa, zigarroa... marrazkietatik kentzen badituzu, ez direla existitzen, baina hori gezurra da". Horrexegatik, gorrotatu egiten du Odrizolak politikoki zuzena dena. Hezitzaile izateko aitzakiarekin zuzenketak eginarazten dizkiete askotan ilustratzaileei: "Sinestekoak ez diren moduko zuzenketak egiten dizkigute batzuetan. Behin emakume bat biluzik marraztu nuen, istorioa horrela zelako eta pertsonaiak biluzik ibiltzen zirelako. Bat-batean, niri ezer esan gabe, ilea hartu eta luzatu egin zioten emakumeari, titiak estaltzeko. **Badirudi inozoentzako marrazkiak egin behar ditugula eta ez gara konturatzen haurrak ez direla inozoak**".



nola hautematen du haurra? Munduko konplexutasuna ulertzeko gai den gizaki bezala? Gaitasunak dituen pertsona gisa? Edota dena maste-katuta, erraz, simple... ematen dion helduak ezgauza, inozo, osatu gabe, ahul... ikusten du haurra?

Psikologoek eta pedagogoek argi diote: garapen egoki bat izango badu, errealitate konplexuak, aberatsak eta kalitatezkoak eskaini behar zaizkio haurrari txikitatik; ez soilik espazio eta materialei dagokionez, baita kulturaren arloan ere: literaturan, musikan, ilustrazioan nahiz folklorean. Izan ere, Juanjo Quintela psikologoak dioen moduan, haurrek fisikoki tamaina txikia izateak ez du esan nahi adimen txikia dutenik. Gaineratzen duenez, haurra gaitasunak dituen pertsona da, eta haurtzarora izango da ikaskuntza handienak egiten dituen aroa, baldin eta horretarako aukerak ematen bazaizkio: "Bizitzako lehen urteetan garunak bizitzako beste inoizko momentutan ez bezalako hazkunde-abiaduran egiten ditu erlazioak. Garunak bere tamaina bikoiztu egiten du, baina horretarako ingurune aberatsak behar ditu".

Loriz Malaguzziren hitzak hartuz, haurrak munduko konplexutasuna ulertzen duela, eta, gainera, aurrrera egiteko konplexutasun hori beharrezko duela esateak ez du esan nahi haurrari bere umetasuna ukatu behar zaionik, baizik eta bere heltze-prozesuan ahalik eta baliabide onenak eskainiz lagun egin behar zaiola. Hain zuzen ere, Alfredo Hoyuelos pedagogoak azaltzen duen eran, haurrek mundua ezberdin ikusten dute eta pentsatzeko euren modua dute, iruditeria diferentea, harremanak egiteko beste era bat... baina horrekin ez dugu pentsatu behar errealitate konplexuak eta kalitatezkoak jaso ezin dituztenik, baizik eta euren erara ulertzen eta interpretatzen dituztela errealitate horiek. Beraz, **sinplifikazioarekin eta infantilizazioarekin aukerak murriztu ordez, umeari proposamen anitzak egin behar zaizkiola defendatzen du, kalitatezko aukera aberatsak eskainiz atea ireki eta bere mundua eraikitzen utzi behar zaiola.**

Horren guztiaren atzean haurrei errealitatea sinplifikatuta emateko ideologia dagoela uste du **Oier Araolaza dantzariak**. Kulturaren *disneylizazioaz* hitz egiten du hark. Bere irudiko, produkzio sinboliko guztia — inauteriak eta mozorroak, Gabonak eta Olentzero, arimen gaua, etxez etxekeak, bestelako festak... — zuzenean umeei begira egiten da eta horrek balioa kentzen dio. "Lehen ez zen umeentzat. Produkzio sinboliko hori helduen mundua zen, eta horren zipriztinak umeen mundura iristen ziren, kasu batzuetan propio haientzat formulatuta. Orain erabaki dugu helduoi ez zaigula hori interesatzen. Orduan dena umeei begira produzitzen da. Ondorioz, iruditzen zaigu mundu sinboliko hori umeentzat egokitu behar dela. Eta hor dator infantilizazioa". Dantzariak gaineratzen duenez, hori guztia umeei begira planteatzen hasten garen momentuan hasten gara liftingak

eta makillajeak sartzen, hau da, *Disneylizatzen*. Eta orduan, propio umeentzat ekoiztako produktu bilakatzen da. **"Zer mundu sinboliko ari garen haurrei transmititzen? Bada, beste munduko ezer ez. Txikitatik alde guztietatik jasotzen duten eta erabat eurena egina duten Disneyren mundu horren antzeko zerbait, besterik ez"**. Ondorioz, Araolazak kritikatzeko du erabat maste-katutako kultura ematen diegula umeei, kontsumo kultura bete-betean, eta ez dagoela tokirik beraiek osatzeko, ez dagoela irudimenarentzat lekurik. **"Haurrei hori eskaintzea eroso izan daiteke, baina irudimena eta sormena errotik erauzten ditu"**.

"Txiki izateak ez du esan nahi adimen txikia dutenik"

Umeentzat egiten den kulturaren infantilizazioaren atzean, ordea, zer dago? Sinplifikatutako errealitatea umeari eskaintzen dion gizarteak